2022ko maiatzean erregistratutako langabezia

2022ko maiatzean zehar LANBIDEko bulegoetan % 1,91 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 113.352 da, aurreko hilean baino 2.202 gutxiago. Maiatzeko datuak positibo-ak izan ohi dira; hil honetako datuak ere joera positibo hau baieztatzen dute.



	mai.-08	mai. -09	mai-.10	mai. 11	mai. 12	mai. 13	mai. 14	mai. 15	mai. 16	mai. 17	mai. 18	mai. 19	mai. 20	mai. 21	mai. 22
Saldoa	-1.69	-3.36	-4.65	-4.80	-988	-371	-3.20	-5.93	-4.54	-2.77	-2.10	-1.77	3.072	-4.36	-2202

Aurreko urteko maiatzarekin alderatuz, 9.266 pertsonatan murriztu da langabezia. Errekuperazio azkar baten ondotik, urte-arteko saldoaren hobekuntza moteltzen ari da. V erako profila du krisiak; langabeziaren hazkunde azkar eta haundi baten ondotik, ezaugarri berberak dituen errekuperazioa.



- **SEXUA**

Azken hilabetean, bai gizonezko zein emakumezkoen artean murriztu egin da langabezia (-1.200 eta -1.002, hurrenez hurren). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-5.362) emakumezkoen arten baino (-3.904). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa izan dute. 2019ko maiatzarekin alderatuz, 245 gizonezko gehiago daude langabezian, emakumezkoak, ordea, 766 gutxiago dira. Gaur egun langabeen % 56,9 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan murriztu da, 55-64 urte artekoen artean izan ezik; % 0,46 hazi da tarte horretan. Beherakada handiena 24 urtetik beherakoen artean erregistratu da (-% 9,63); 25-34 adin tarteak jarraitu dio (-% 2,62). Urte arteko bilakaeran, korrelazio handia ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean: 24 urtetik beherakoenen artean eman da murrizketa handiena (% -13,04); 35-44 urte artekoan (-% 12,48) eta 25-34 tartean % 11,98 murriztu da. 54 urtetik gorakoen tartean hazi da soilik langabezia; %1,54, hain zuzen ere.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Maiatzean, langabezia sektore guztietan murriztu da. Gehien, lehen sektorean murriztu da (-% 5,97) eta gutxien zerbitzuetan (-1,22%). Lan-esperientziarik ez dutenen artean % 3,11 murriztu da langabezia hil honetan. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da industrian (-% 11,86), eraikuntzan (% -9,38) eta zerbitzu sektorean (-% 6,37) egon den beherakada nabarmena. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 9,28 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

56 Janari eta edarien zerbitzua ..... - 372

47 Txikizkako merkataritza ..... -240

01 Nekazaritza eta abeltzaintza ..... -172

43 Eraikuntza espezializatuko jarduerak ..... -133

97 Etxeetako jarduerak, etxeetako langileen enplegatzaile gisa ..... -121

Aitzitik, maiatzean erregistratutako langabeziaren murrizketa izan duten jarduerak hauek izan dira:

87 Egoitza-establezimenduetako laguntza ..... +84

78 Enpleguarekin loturiko jarduerak ..... +37

86 Osasun jarduerak ..... +28

58 Edizioa ..... +22

29 Motordun ibilgailuen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa ..... +16

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 263 pertsonatan murriztu da (-% 0,45) eta epe laburrekoa, ere, murriztu egin da (1.939 pertsona gutxiago, -% 3,73). Urte osoari begiratuz gero, epe luzeko langabeen artean murrizketa eman da (-% 15,32); epe laburrekoen kasuan, aldiz,

hazi egin da (% 2,15). Krisiaren luzatzeak epe luzeko langabezia nabarmen igotzea eragin zuen; gaur egun, zorionez, bestelakotzen ari da egoera; 57.695 langabe iraupen luzekoak dira, langabe guztien % 50,9a.

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean; baita emakume eta Bizkaian erroldatutakoen artean ere. Azken hilabetean, bilakaera hoberena 30-44 urte arteko tartekoek izan dute.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Maiatzeko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 1,09 murriztu da, apirilean baino 286 langabe gutxiago, 19.397 langabe guztira. Gipuzkoan % 2,04 murriztu da, 629 pertsona gutxiago daude langabezian apirilarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 30.162koa da) hil honetan bilakaera okerrena erregistratu duen lurraldea izan da. Azkenik, Bizkaian, martxoan baino 954 langabe gutxiago daude (% 1,98ko murrizketa), langabetu kopurua 63.793 da; portzentualki bilakaera onena izan duen lurraldea da

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio hoberena % 8,11ko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 7,42ko murrizketarekin eta azkenik Araban % 5,91 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean langabezia 406 pertsonatan murriztu da (-% 1,81), Vitoria-Gasteizen 176 pertsonatan murriztu da (-% 1,16) eta Donostian 89 pertsonatan murriztu da (-% 1,18). Murrizketa nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Ezkerraldea (-436), Gobela (-119) eta Arabar Errioxa (-103) izan dira. Bestalde Enkarterrietan (+3) eta Gorbea bailaran (+3) erregistratu dira hazkunde nabarmenenak.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Alonsotegi (% 17,47), Sestao (% 17,22), Lanestosa (% 16,36), eta Balmaseda (% 15,96).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2022ko maiatzean 37.333 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 576 langabe gutxiagok. Langabeen % 32,9k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea du. 20.132 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 17,8 dira horiek. 17.210 langabek (% 15,2), berriz, langabezia prestazioaren bat jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,4), Bizkaian % 32,1ekoa da eta Araban % 31,8koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0,31 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz, aldiz, murriztu egin da, 0,61 puntu hain zuzen ere.

Maiatzean ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua jaitsi egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua, berriz, handitu egin da.

- **JATORRIA**

Langabeen % 16,5 (18.751 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia gutxiago murriztu da atzerritarren artean (-% 1,67) bertakoen artean baino (-% 1,95). Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 6,32 murriztu da, eta bertakoen artean % 7,80.

Langabe atzerritarren % 34,6 Afrika iparraldekoak dira, % 22,6 Latinoamerikatik datoz, % 18 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,3 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,1 azkenik, Asia-

tik. Maiatzean Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-187); Asiatik etorritakoen artean, aldiz, konstante mantendu da.

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 60,7k (68.800 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 1.654 langabetu gutxiago erregistratu dira; % 2,35 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 7,78 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9 dira. Talde horretan % 1,69 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 9,84 murriztu da.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.115 dira, hau da, langabeen % 18,6. Talde hau maiatzean zehar % 0,49 murriztu da, eta azken urtean % 9,84.

Azkenik, langabeen % 11,8k (13.379 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 1,06 murriztu da langabezia azken hilabetean eta, % 7,37a azken urtean.

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan 99.512 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 3,29ko beherakada). Guztira 2.922.911 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 1,91 jaitsi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 4,08 murriztu da, Errioxan % 6,33 murriztu, Kantabrian % 3,36 murriztu da eta Gaztela eta Leonen % 3,85 murriztu. Katalunian % 4,57 murriztu da eta Madrilen ere murriztu egin da; % 4,04 hain zuzen ere.

Lan-eskatzaile langabeak 2022eko maiatzean

	Mai-2022	Api-2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	48.870	50.070	-1.200	-2,40
EMAKUMEZKOAK	64.482	65.484	-1.002	-1,53
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	17.588	18.783	-1.195	-6,36
GIZONEZKOAK	8.618	9.146	-528	-5,77
EMAKUMEZKOAK	8.970	9.637	-667	-6,92
25-44 URTE:				
GUZTIRA	34.361	35.146	-785	-2,23
GIZONEZKOAK	13.563	13.966	-403	-2,89
EMAKUMEZKOAK	20.798	21.180	-382	-1,80
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	61.403	61.625	-222	-0,36
GIZONEZKOAK	26.689	26.958	-269	-1,00
EMAKUMEZKOAK	34.714	34.667	47	0,14
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.379	2.530	-151	-5,97
INDUSTRIA	12.371	12.773	-402	-3,15
ERAIKUNTZA	7.278	7.515	-237	-3,15
ZERBITZUAK	76.906	77.855	-949	-1,22
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.418	14.881	-463	-3,11
LURRALDE HISTORIKOA:				

ARABA	19.397	19.683	-286	-1,45
BIZKAIA	63.793	65.080	-1.287	-1,98
GIPUZKOA	30.162	30.791	-629	-2,04
EAE	**113.352**	**115.554**	**-2.202**	**-1,91**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.867	10,4%	-101	-2,55	-361	-8,54
Oarsoaldea	3.515	9,6%	-92	-2,55	-311	-8,13
Donostia-S.Seb.	7.430	8,4%	-89	-1,18	-816	-9,90
Donost.Mendebaldea	3.001	8,0%	-42	-1,38	-263	-8,06
Tolosaldea	1.914	8,1%	-50	-2,55	-154	-7,45
Urola Erdia	1.171	7,5%	-32	-2,66	-67	-5,41
Goiherri	1.636	7,6%	-31	-1,86	-36	-2,15
Deba Garaia	2.327	7,7%	-78	-3,24	-80	-3,32
Deba Behera	2.651	10,0%	-88	-3,21	-171	-6,06
Urola Garaia	1.087	8,9%	-14	-1,27	-28	-2,51
Urola Kosta	1.563	6,9%	-12	-0,76	-132	-7,79
GIPUZKOA	30.162	8,5%	-629	-2,04	-2.419	-7,42
Vitoria-Gasteiz	15.045	11,9%	-176	-1,16	-999	-6,23
Aialako Ibarra	2.207	11,8%	-49	-2,17	-235	-9,62
Arabar Errioxa	571	10,6%	-103	-15,28	-56	-8,93
Arabako lautada	712	9,4%	-12	-1,66	-24	-3,26
Gorbeia inguruak	314	6,7%	3	0,96	-14	-4,27
Arabako Ibarrak	412	8,1%	-12	-2,83	-8	-1,90
Arabako Mendialdea	94	6,0%	-3	-3,09	-8	-7,84
ARABA	19.397	11,6%	-286	-1,45	-1.218	-5,91
Gobela	4.497	8,9%	-119	-2,58	-537	-10,67
Txorierri	2.073	9,1%	-78	-3,63	-292	-12,35
Uribealdea	2.896	8,7%	-37	-1,26	-273	-8,61
Durangaldea	3.265	8,8%	-20	-0,61	-256	-7,27
Busturialdea	2.080	9,7%	-30	-1,42	-249	-10,69
Lea-Artibai	924	7,7%	-28	-2,94	-59	-6,00
Enkarterriak	1.989	13,1%	3	0,15	-120	-5,69
Arratia-Zornotza	1.432	8,2%	-62	-4,15	-127	-8,15
Arratia-Nerbioi	1.326	10,3%	-9	-0,67	-52	-3,77
Bilbo	22.054	13,1%	-406	-1,81	-1.764	-7,41
Ezkerraldea	16.708	13,5%	-436	-2,54	-1.512	-8,30
Ibaizabal	4.464	11,1%	-67	-1,48	-373	-7,71
BIZKAIA	63.793	11,5%	-1.287	-1,98	-5.629	-8,11
EAE	**113.352**	**10,5%**	**-2.202**	**-1,91**	**-9.266**	**-7,56**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.